



ZIRKULAR HAU IRAKURTZEA OSO GARRANTZITSUA DA

JANTZI HAU **“AMARA BERRI GURASO ELKARTEA”**rena DA. ZAINDU ZUREA IZANGO BALITZ BEZALA, BESTE NESKA-MUTIL BATZUK ERABILIKO DUTE DATORREN URTEAN.

ARAUAK:

1. Donosti egunean, haur guztiek eraman behar dituztenak:
 - Eskularru txuriak eta zapata beltzak (**kiroletakoak ez dira onartuko**).
 - Galtzerdi beltzak (Kantinerak ezik).
 - Leotardo txuriak (hotza egingo balu). Kantinerak, kanalerik gabekoak.
2. Kontuz ibili botoiak lotu eta askatzerakoan, botoi-zuloak itxuraldatu ez daitezten. Botoien bat falta bada, jarri (danborradako arduradun bati eskatu eta emango dizkizuegu).
3. Jantzia, jaso zenutenean bezala itzuli behar da (emandako pertxa eta estalkiarekin).
 - Zikinak, botoirik gabe edo eta hondatuta dauden jantziak ez dira onartuko.
 - Galtzak, gonak eta danborraren apaindura, garbituta eta lixatu gabe itzuliko dira (soilik desfile egunean lixatuko dira). **Kontuz!** gonak ur hotzarekin garbitu behar dira (kolore urdinak tintatu egiten baitu), kontuz ere danborraren apainduraren haritxoekin.
 - Kasaka ez da tindategira eraman behar, zikina badago, eskuilatu, aireztatu eta eduki ditzakeen orbanak kontu askorekin garbitu.
 - Polainetan dagoen gomatxoa garbitu egin behar da, lurra ikutzen duenez, asko zikintzen baita.
 - Gaizki erabiltzeagatik galtzen edo hondatzen diren jantzien osagarriak ikasleak ordainduko ditu, bereziki lumak, oso garestiak direlako (30 € bakoitza).
 - Danborra eta makilak jantziarekin batera itzuliko dira.
- Danborren eta barrilen zorrotxo txurian euritako bat dago, soilik, desfilearen egunean euria egingo balu erabiliko dugu eta erabili ezean, dagoen lekuan (zorrotxo txurian) eta jantziarekin batera itzuli behar da. Cantinera eta Gastadoreen euritakoa komisioko arduradunak eramango dituzte.
4. Jantzia Haur Danborradaren Batzordeak esandako data eta orduan itzuli behar da. **Norbaitek arazoak balitu egun eta/edo ordu honetan, jarri harremanetan Batzordearekin.**

OSO GARRANTZITSUA DA LEHENBAILEHEN JANTZIA PROBATZEA. Jantziak, eta neska-mutilen neurriak kontutan hartu ditugu hauek banatzerakoan, baina ala ere, aldaketaren bat egitera behartuta egon gaitezke, beraz, Danborradako arduradunen batek edozein parte-hartzaileri jantzia itzultzea eskatzen badio, behartuta egongo da jantzia itzultzeraz eta dagokion aldaketa egin ondoren beste bat emango zaio.

Jantziari dagokionez zalantzarik ala arazoren bat izanez gero jarri harremanetan helbide elektronikoan abghaurdanborrada@gmail.com

HAUR DANBORRADAREN BATZORDEA